

# EUSKARA DONOSTIAN

**AZTERKETA SOZIOLINGUISTIKOAREN LABURPENA**



**DONOSTIA HIRIKO EUSKARAREN UDAL PATRONATUA 1986**

# AURKEZPENA

Donostiako Udalak, euskararen egoera gaur egun zein den jakiteko, azterketa soziolinguistikoa egin du.

Euskararen Udal Patronatuak, bere plangintza eta lanak gauzatzeko, jakin behar du euskararen egoera Donostian, gizarte maila guztietan: Irakas-kuntzan, Komunikabideetan, kalean, lantokietan, azokan... hitz batez, euskararen egoera gure eguneroko gizarte-bizitzan, zertan den.

Abiapuntua hori izanik, helburua oso garbi dago. Donostia hiri euskalduna izan dadila Euskal Herri euskaldun batetan. Eta horretarako, gaurko egoera aldatu egin behar dugu euskararen hizkuntz normal-kuntzaren prozesua aurreratuz. Xedea: euskaraz bizitzea.

Azterketa Soziolinguistiko honetan garbi ikusten da egoera larrian gaudela eta guztiok dugu zeregin egoera hau gainditzeko, denon eginkizun eta bete-beharra da.

Euskara, donostiar guztion ondarea denez, guztiona eta guztiontzat delako, geuri dagokigu: Guk euskaldundu behar dugu geure ingurua; donostiarrök euskaldundu behar dugu Donostia arlo guztietan.

Hemen duzu gaurko egoera. Emerjentziazko egoera hau aldatzeko desafioa dugu. Gure esku dago. Aurrera.

Donostia, 1987ko Urtarrila.

LEHENDAKARIORDEA,

*Señorari Conq. E.*



- Azterketa Soziolinguistikoaren eragilea: Donostiako Udala.
- Azterketa Soziolinguistikoaren egilea: SIADECO taldea.
- «Euskara Donostian» laburpenaren idazlea: Martin Ugalde.

Argazkiak: Iñaki Agirre.

# EUSKARA DONOSTIAN HISTORIAN ZEHAR

## SARRERA

Euskarari bultza egin behar *zaiola* esaten da; *diogula* esatea hobe litzateke, ez bagera gezurretan ari behintzat.

Egitan lanari egoki eta gogoz ekiteko, plangintza bat behar dugu, eta hau da Donostiako Udala zure eskuetan jartzen ari dena. SIADECOk (Sozio-ekonomi ikerketa elkarteak) egokitu du profesionalki: Donostian zenbatek egiten duten euskara, jende hau nolakoa den: gizonezko-emakumezkoa, zein adinetakoa, bertan jaioa ala etorkina den, ikasketa eta profesioz nolakoa. Bestalde, euskara erabiltzen dutenek: norekin, zertaz hitzegiteko, zein lekuetan, zein sarri, hitzez eta idatziz, erabiltzen duten.

Azkenik, bai euskaldunek eta bai erdaldunek zer jarrera duten euskararekiko.

Datu hauek lagunduko digute diagnosi bat egin eta udal-mailako plangintza egoki bat prestatzen, ea euskararen erabilpena normalizatzeko bidean jartzen dugun denen artean: gizarte bizitzako atal guztietan, administrazio publikoetatik lan munduraino, irakas-kuntzan, komertzial eta osasun zerbitzuetan, legezkoetan, erlijiosoetan, pertsonaletan eta profesio-naletan.

*Bizitza sozialeko alor guztietan euskara normalki erabilia izatea lortu behar dugu.*

Donostia jartzen da askotan kultura eta euskarari buruz eredu bezala. Halaxe da, alderdi batzuetatik begiratuta. Baina asko dago egiteko. Bizi den herri batek historian zehar berea duen nortasunaren alde borrokatu beharrean aurkitzen da. Bestela, inbasioek, indarkeriek, modu askotako genozidioek irentsi ginduzten euskaldunok aspaldi! Eta ez gara ari Frankismoak eragindako hainbat zapalkuntzaz bakarrik. Berez, historikoki izan ditugu aurretikoak. Donostiari bagagozkio, eta hizkuntzari bereziki, gaskoinak hemen izan zuten eragina ezaguna den baino handiagoa izan zen, eta labur bada ere, aipatu behar dugu nolakoa eta zenbatekoa izan zen.

## Gaskoinak Donostian

Juan Ignacio de Gamón, historialari errederiarrak dionez, Nafarroako Sancho VI, *Jakintsua* (El Sabio), zenak Donostiari *carta de Fuero de población* 1150an eman zionez gero (Donostia, Nafarroako portua) hasi ziren Iparraldeko Gaskoinatik gaskoinak etor-

ritzen: errege nafarraren alaba Doña Berengela, Akitaniako kondea ere bazen Ingalaterrako Rikardorekin ezkondu zen, eta hemendik, Iparraldetik behera, gaskoin asko jaitsi zen, batez ere Donostia jendeztatzeke asmoarekin, daki-gun bezala. Doctor Camino donostiarrak dio, bere aldetik, 1204an Gaztelako Alfonso VIII eta bere emazte Doña Leonor heredentzia beraz jabetu eta gero biak donostiaratu zirenean, bere Gorte guztia berekin zutela: aberatsak, gotzaiak, merkatariak, bai Gaztelakoak eta baita Gaskoinakoak ere.

Agiri eta Ordenantza asko idatzi ziren XIV. eta XV. an gaztelaraz eta gaskoieraz, bietara.

Horrela, ez da harrizkoa historia honen ondore bezala gure herrian gaskoin izen asko, eta batzu ospetsuak, geratzea (1). Hizkuntza berari dago-kionez, Doctor Caminok 1802an dionez, fetxa honetan Pasaian bakarrik hitzegiten zen gaskoinera.

(1) Joko eta jolas asko, jatorriz gaskoinak zirenak, ezagunak izan dira Donostian duela urte gutxi arte (ikus A. Anabitarten Donostia...).

## INTRODUCCION

*En el momento de fijar los principios democráticos del posfranquismo ha sido fácil el acuerdo entre los grupos políticos para declarar que la lengua vasca, el euskara, tiene derecho a su recuperación; pero no lo ha sido tanto en el momento de llevar a la práctica social que pasa por la voluntad personal, a veces de las comunidades lingüísticas, en las que se articula el Estado.*

*Lo que es indispensable para sentar sobre bases reales una convivencia en el respeto mutuo.*

*Como cualquier otra tarea de recuperación cultural, la de restituir a un pueblo su lengua tiene que partir de un estudio socio-lingüístico sobre el terreno que permita hacer un análisis de la situación en que sobrevive, para así poder planificar el proceso necesario para su recuperación. Esto es lo que ha decidido el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián: solicitar a SIADECO (Sociedad de Investigación Aplicada) una encuesta-estudio que permita establecer este diagnóstico.*

*Y no sólo con la intención de que el ciudadano donostiarra conozca la situación real de su propia lengua, ahora oficial, sino para que este material le permita comprender las medidas*



CLV.  
Ein Jundfratz und Junger Weill auß Piffkala.  
Die Giffen und Jundfratz eben/  
Die noch außerbem Piffkahliden. Eichen dabir in folcher Tracht/  
Wenn sie reiben haffte und vradt

## Victor Hugo Donostian

Doctor Caminok hau esan, lehen gerra karlista amaitu eta laster, 1843an, izan zen Victor Hugo, poeta eta idazle frantsesa gure artean, eta hala dio: «Pero, ¿realmente estoy en España aquí? San Sebastián está unida a España como España está unida a Europa, por una lengua de tierra. Es una península en la península; y en esto todavía, como en un montón de otras cosas, el aspecto físico es el símbolo del estado moral. Apenas se es español en San Sebastián: se es vasco. Esto es Guipúzcoa, es el antiguo país de los fueros, son las viejas provincias libres vascongadas. *Realmente se habla poco castellano, pero se habla sobre todo vascuence.* (...) Y además hay franceses por todas partes; en la ciudad, de doce comerciantes que tienen *boticas*, tres son franceses. (...) Aspecto singular, por otro lado y digno de estudio. Agregó que aquí un vínculo secreto y profundo, y que nada ha podido romper, une, incluso a pesar de los tratados, esas fronteras *diplo-máticas*, incluso a pesar de los Pirineos, esas fronteras naturales, a todos los miembros de la misteriosa familia vasca. La antigua palabra *Navarra* no es una palabra. Se nace vasco, se habla vasco, se vive vasco y se muere vasco.

La lengua vasca es una patria, he dicho casi una religión. Decir una palabra vasca a un montañés en la montaña;



antes de esa palabra apenas erais un hombre para él; ahora sois su hermano. La lengua española es aquí una extranjera como la lengua francesa» (1). Ez dago beraz zalantzarako biderik

joan den mendearen erdialdean Donostian zein hizkuntza zen erabiliena jakiteko orduan.

(1) *Los Pirineos*, Victor Hugo, 1843.

que necesita poner en ejecución con objeto de que esta recuperación pueda llevarse a cabo.

Claro es que mediante la colaboración ciudadana que permita lograr su propia integración en el proyecto.

Tanto el que habla la lengua vasca, expresándose sin los complejos creados durante los largos años de represión, como el que por distintas razones no la conoce y tiene, no digamos que la obligación (un término que tiene un cierto tono ordenancista) sino el deber ciudadano, de colaborar en esta recuperación.

Este proceso no pone al que se ha incorporado desde otras tierras en el trance de reducir su

propio acervo cultural ni su libertad, sino en la oportunidad de ampliarlos con la incorporación del euskara a sus conocimientos y una forma de integrarse de pleno derecho en la Comunidad Lingüística Vasca cuya realidad junto con la de otras comunidades lingüísticas se reconoce en la Constitución del Estado, y cuyo uso se regula en la Ley de Normalización del Uso del Euskara aprobado por el Parlamento Vasco como expresión de la voluntad democrática de la Comunidad Autónoma.

## EL EUSKARA EN DONOSTIA A TRAVES DE LA HISTORIA

Donostia es hoy en gran parte vascófona.

Sin embargo, el uso del euskara se ha reducido mucho en razón, o en sinrazón, mejor, de violencias culturales, armadas o no, contra las que ha tenido que reaccionar en muchas ocasiones de su vida histórica para conservar su identidad.

### Los gascones en Donostia

Juan Ignacio de Gamón, historiador renteriano, refiere cómo, en tiempos en que el rey

navarro Sancho VI el Sabio dotó de carta de Fuero de Población a Donostia/San Sebastián el año 1150 (Donostia, puerto de Navarra) comenzaron a venir del norte los gascones, ciudadanos de la región de la Gascuña; la razón era clara: ese territorio gascón era en el tiempo (y lo fue durante siglos) inglés, y al casarse la hija de Sancho el Sabio, Doña Berenguela, con el que al mismo tiempo que era Ricardo de Inglaterra era también Conde de Aquitania o Gascuña, era natural que bajasen gascones a tierras emparentadas, las vascas, a poblar la ciudad. El Doctor Camino, historiador donostiarra, da también cuenta de este mismo fenómeno producido más tarde, en 1204, cuando es

## Sute handitik berreraiketara

Behin, sute ikaragarri batek Donosti osoa erre zuen. 1813. urteko Abuztuaren 31. eguna zen.

Baina herriko gizonak geratu ziren, eta 81 urte luze elkarrekin lanean aritu eta gero, 1894go irailak 10 zituela bildu zen herri osoa harran idatzita geratuko ziren hitz hauek irakurtzera:

*MDCCCXIII-ko Agorraren Seko*

*Juntan*

*Erri-Batzarreak*

*Erabaki zuen arri au emen jartzea*

*Sekulan aztu ez dedin gertaera ura*

Eta Lizasoain Alkate jaunak hitz hauek esan zituen euskaraz:

«Nere erritar maitiak: Dudan egondu naiz nola lau itz abek esan, edo gaztelaniyaz edo euskeraz, bañan pentsatu det euskeraz esan biar nitubela, naiz nere euskera eskasian, fest'au eman degun kasuan gure kosketako kale maiti ontan. Badakizute arri oyek jartzeko motibua: gaur dala 81 urte juntatu ziran aurreko eche onetan Donostiko Alkate eta erregidore jaunak lenbiziko aldiz, gure erri maitia erre zan eskeru, eta or egin zuten batzarre edo junta ura, zergatikan konseju echia beste erriko eche geyenak besela erria zan.



*Alfonso VIII de Castilla el que casado con Doña Leonor recibió la misma herencia de Gascuña y como tal trajo ese año de principios del siglo XIII su Corte compuesta de ricos hombres, obispos y comerciantes de ambas tierras, de Gascuña y de Castilla.*

*Y así ocurre que muchas Ordenanzas de este tiempo y luego los siglos XIV y XV aparecen escritas en castellano y en gascón en San Sebastián, en Rentería y otros puntos del País Vasco. Así pues, no es de extrañar que a través de esta influencia hayan quedado entre nosotros muchos apellidos gascones, algunos pertenecientes a prestigiosas personalidades de la vida donostiarra de aquellos siglos.*

*Cuando siglos más tarde escribe el Doctor Camino en 1802, la lengua gascona sólo se habla ya en Pasajes.*

### Victor Hugo nos visita

*El que fue Cronista oficial de Donostia/San Sebastián, Doctor Camino, nos da esta noticia en 1802, luego se produce la primera guerra carlista (1832-1839) y seis años después, en 1843, está el escritor francés Víctor Hugo en la capital donostiarra: (véase texto en euskara).*

### Del terrible incendio de 1813 y la reconstrucción de Donostia en 1894

*La Guerra de la Independencia española contra el francés (1808-1814) terminó con la derrota de Napoleón por el inglés Wellington en Gasteiz/Vitoria en el verano de 1813, y la última de las batallas se dio en el monte San Marcial, de Irún. El cuarto ejército español ocupaba el casco del pueblo, además de San Marcial; una Brigada de 3.600 portugueses acampó en las inmediaciones de Peñas de Aya, y los ingleses en los barrios de Anaka y Ventas (17 de octubre).*

*Pero antes de esta batalla que terminó con el francés en la Península, arrasaron y quemaron Donostia:*

*Las fuerzas napoleónicas que guarnecían la ciudad se habían refugiado en el castillo de la Mota y capitulado el 8 de septiembre. «Las tropas francesas—dice Serapio Mugica—con el general Rey, ocupaban la plaza y el castillo. Después de varios días de asedio, el ejército anglo-portugués penetró en la plaza el 31 de agosto, atravesando el Urumea en la baja mar por Zurriola y abriendo brecha en el punto donde se hallan el mercado y la plazuela que llevan hoy ese nombre. A la satisfacción del*

»Propiyua zan, bada, letrero orrekin betiko gogoratzia, nola desgraziyako egun ayetan Donostiko persona principalenak juntatu ziran gure erri maitiaren probechuan tratatzeko.

»Eztezute biar esatia zer pasa zan emen epoka triste artan. Agostuaren 31 garren egunian, sartu ziran gure erriyan soldatu ingeles eta protugesak; tropa ayek ziran ustez gure adiskidiak, eta donostiarrak erresibitu zituzten pozez choraturik. Laster biurtu biar zan poz ura penetan eta malkoetan. Egun artan bertan asi ziran soldadu ayek moskortuta edo erotuta dendak eta echiak ostutzen, gizonak insultatzen, emakumiak desonratzen eta genero gusiko charkeriyak egiten. Inor atrebitu ezkeru bereazienda edo bere onra defenditzen, biziya galduba zuen.

»Modu onetan etorri zan gau triste ura, eta inpernuko soldadu ayek bere azaña konpletatzeko su eman ziyoten erriyari. Oso erre ziran 600 eche eta eziñ esan liteke zenbat kristauk galdu zuten biziya. Eroturik gure erriarrak, eta alzuten bezela, eskapo egin zuten erriatik kanpora. Pensa zazute zer animotan joango ziran beren aziendak galdu eta asko nor bere gurasuen faltan.


»Aste bete barru juntatu ziran Zubietako barriyuan Donostiko Alkatiak Migel Antonio Bengoechea eta Manuel Gogorza jaunak, emengo apaiz eta persona principalenak, eta negar eta suspiro tartian, akordatu zuten Donostiya

berrizkotik alchatzia lengo bere lekuban, eta bi egun geroztik juntatu ziran eche onetan len esan detan bezela.

»Zer ejemplo ederra, nere erritar maitiak! Ala desgraciyan nola ontasunian, ez beñere aztutzeko ejemplua izan biar du au guretzat. Imita zagun bada beti ta egin zazkigun egiñala guztiyak gure erri maitiaren probechuan, eta gaur, fest'onen motibuarekin, esan zagun gure pechuko indar guziarekin. Biba gure Donosti maitia! Biba San Telmo kalia!».

Merezi zuela uste dut hitzaldi hau bere osoan ematea.

Hitzaldia izan zitekeen hobeto idatzia, baina ez inolatan ere sentikorra goan adierazia modurik. A!, euskaldunok maizago honelako izpirituak eraginda bilduko bagiña gure Aitaren Etxea defendatzeko! Dena den, eta besteak beste, hitzaldi honek joan zen mendearen azkenaldian Donostiako hizkuntza nagusia euskara zela adierazteko ere balio du.



vecindario, que recibió con regocijo a sus aliados, respondieron aquellas tropas incendiando toda la población con mixtos de gran fuerza, que preparaban a ese efecto en las calles, y cometieron con los habitantes de San Sebastián toda clase de atrocidades y tropelías, dejándoles sin hogar ni amparo, en la miseria más espantosa. Se quemaron más de 600 casas, casi todas de tres pisos. Sólo quedaron en pie 36, de las que una se quemó a los pocos días.

«Huyó el vecindario a donde pudo: Los vecinos principales albergados en los pueblos comarcanos, reunieron en la Comunidad de Zubieta el día 8 de septiembre, y evocando el recuerdo de sus antepasados, que supieron

reedificar la ciudad diversas veces, y reconfortando sus decaídos ánimos con el enérgico ejemplo de sus mayores, acordaron reconstruir la ciudad» (1).

Tuvieron otras dos reuniones el 9 y el 10 de septiembre, y al final de esta última regresaron a la ciudad los dos Alcaldes: don Miguel Antonio de Bengoechea y don Manuel de Gogorza; los regidores don José María de Eceiza y don José

(1) Las calles de San Sebastián, impreso por acuerdo del Ayuntamiento de San Sebastián, 1916. La ciudad había sufrido anteriores incendios en: 1266, 1278, 1338, 1361, 1397, 1433, 1489, 1512, 1524, 1630.

Santiago de Claessens; el secretario, don José Joaquín de Arizmendi, y «varios vecinos más que se unieron a la comitiva para visitar las ruinas de sus hogares».

Han pasado 81 años, y es el alcalde señor Lizasoain el que en 1894 preside el 10 de septiembre el acto de colocar una placa para que los ciudadanos de generaciones venideras sepan de este esfuerzo, y al descubrirla pronuncie en euskara estas palabras que traducidas literalmente al castellano para esta publicación dicen lo siguiente:

«Mis queridos conciudadanos: He estado dudando cómo decir estas palabras, o en cas-

tellano o en euskara, pero he pensado que he de decírlas en euskara, aunque sea en mi euskara poco cultivado, en la ocasión de la fiesta que celebramos en esta querida calle. Ya conocéis el motivo de colocar esta piedra: hoy se cumplen 81 años que se reunieron en esta casa que tenemos delante el Alcalde de Donostia y los señores regidores la primera vez después de la quema de nuestro querido pueblo, y ahí celebraron aquella reunión, porque el Ayuntamiento, como la mayoría de las demás casas, fue pasto de las llamas también.

»Era oportuno, pues, que con esta inscripción recordásemos para siempre, cómo en aquellos desgraciados días de Donostia se reunieron las

## Hiru urte geroago (1897) kale-izenak

Egun eder horretako Lore-jokoetan eskatu bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu zuen kaleen izenak euskaraz eta gaztelera, bietara, jartzeko

*San Telmo kalea	Calle del 31 de Agosto
Portu kalea	Calle del Puerto
*Apaiz kalea	Calle del Puyelo
*Aza kalezarra	Calle de Embeltrán
Putzu kalea	Calle del Pozo
Kaiaurre kalea	Calle Frente al muelle
Aingeru kalea	Calle del Angel
*Zubigañ kalea	Calle del Campanario
Kale nagusia	Calle Mayor
*Escotilla kalea	Calle de San Jerónimo
*Esnategi kalea	Calle de Narrica
San Juan Kalea	Calle de San Juan
Zurriola kalea	Calle de la Zurriola
*Ingente kalea	Calle de Igentea
Vilinch kalea	Calle de Vilinch
*Collado kalea	Calle de Esterlines
*Ikatz kalea	Calle de Juan de Bilbao
Iñigo kalea	Calle de Iñigo
Lorenzo kalea	Calle de San Lorenzo
Santa Ana kalea	Calle de Santa Ana
Peru Juancho kalea	Calle de Peru Juancho
San Vicente kalea	Calle de San Vicente
Arrandegi kalea	Calle de la Pescadería
Plaza Zarra	Plaza Vieja
*Plaza berriya	Plaza de la Constitución
Ikaslekuetako plazachoa	Plazuela de las Escuelas
Lasalaren plazachoa	Plazuela de la Sala
Brechako plazachoa	Plazuela de la Brecha

\* Ikurra aurrean daramaten euskal izenak, tradizioari atxikituta geratu ziren itzulpenik egin gabe.

personas principales del pueblo para tratar lo que era necesario hacer en provecho de nuestro querido pueblo.

«No necesitáis que yo vuelva a recordar lo que pasó en aquella triste ocasión». (...)

Creemos que el discurso de este alcalde de Donostia/San Sebastián de fines del siglo pasado merecía ser mencionado.

El discurso hubiera podido tener una sintaxis más correcta, pero acaso ninguna otra manera mejor para expresar lo que sentía. Por otro lado pone de manifiesto, el conocimiento y uso generalizado del euskara en Donostia a finales del siglo pasado.

erabakia; Udalak 600 pezeta eskaini zituen Eibarko Elejalde etxetik behar ziren plakak erosteko.

Harrezgero izan zituzten Donostiako kaleak bi hizkuntzetan jarriak:

## Tres años después (1897) los nombres de las calles

Tres años después de este acto, y atendiendo la solicitud hecha por el Consistorio de Juegos Florales de la ciudad, la Exma. Diputación de Guipúzcoa acordó la rotulación bilingüe de las calles de Donostia, y con la siguiente reflexión que da a conocer el historiador de la ciudad de Donostia/San Sebastián, Baldomero Anabitarte, en su Gestión del Municipio de San Sebastián en el siglo XIX (2): «La rotulación en vascuence de las calles de la parte nueva requería un estudio más detenido, porque ni son conocidas con denominaciones populares vascongadas como



la mayor parte de las de la antigua, ni la traducción literal del nombre castellano al vascuence resulta acomodada a la naturaleza y exigencias de esta lengua, razón por la cual, de fijarse el nombre traducido en los rótulos, la denominación vascongada en dichas calles aparecería siempre postergada ante el nombre en castellano, y para evitar este inconveniente, el Ayuntamiento acordó en 13 de abril de 1897,

(2) Imprenta Jorret, 1903, San Sebastián. Además, publicó: Colección de Documentos históricos del Archivo Municipal de la M. N. y M. L. ciudad de San Sebastián. Años 1200-1813, San Sebastián, Imp. de la Unión Vascongada, 1895.

que siempre que haya que rotular una nueva calle, plaza o paseo, se les dé nombre en vascuence y en castellano, ateniéndose a la naturaleza propia de ambos idiomas».

## Funcionarios que hablen euskara (1886)

Hoy se nos está planteando, y por parte de partidos políticos democráticos que han asumido el contenido de la Ley 10-1982 aprobada por el Parlamento Vasco: Ley Básica de Normalización del Uso del Euskara, el contenido de viejas ordenanzas para mantener la Administración Vasca enteramente supeditada al castellano.

## Funtzionari euskaldunak (1886, 1896)

Gure administrazioko funtzionariak euskaldunak nahi izan ditugu, justizia den bezala; batez ere arerioak berak ere elebitasuna teoriarik onartu badu eta gure herrian euskara ofiziala aitortu behar izan badu; baina praktikan legez debekatu nahi digute aukera hau, «diskriminazioa» dela eta. Norena da diskriminazioa?!

Gaur oraindik honetan ari gara, gaitza zaharra bada ere.

1886an euskalduna nahi dute Donostiako udalean herriko Idazkaria aukeratzekoan, baina legezko oztopoetxi xiri egin behar die: azterketa aurretik sailketak egiterakoan hartuko du udalak euskalduntasunaren kontua. Arbitrioetako zeladoreak aukeratzen ere oztopo berarekin aurkitzen dira; halako protesta egin zuten *Euskal-Erriari*: «Protestamos» (...) «Si no se rectifica esa conducta, contra la cual protestamos con todo respeto, pero con toda energía también, entonces más o menos tarde llegará el momento de exclamar con desolada angustia: *Euskal-erria eta Euskaldunak ill ziran!* La Unión Vascongada (Diario político, literario y de noticias).

## Euskal deklamaziorako Akademia (1914)

Euskara lantzeko beharra sentitu zuten antzerkia maite zutenak; hauetako bat, Udaleko zinegotzi izatez gainera antzerkigile bat zenez gero (Abelino Barriola), euskal deklamaziorako Akademia bat sortzeko asmoa aurkeztu zuen, eta halaxe erabaki ere egin zen; zuzendari, garai hartako antzerkigile sonatuena jarri zuen Barriola jaunak: Toribio Alzaga; azken aldirian, urtetan, zuzendari izan dena, María Dolores Agirre izan da.

## Tradizioari begirunea (1917)


Gros auzoko murruberrira eraikitzen ari zirela, izen ezberdinak ematen hasi zen herria; Udala arduratu zen honetaz, eta erabaki hau hartu zuen: dagoeneko 1278an Donostian izan zen sutean aipatzen den bezala, eta mendez mendez herriak gogoan zueneko gero, murruberrira aukeratu zuten zabalguneari *Zurriola* deitzea: baita zubiari eta hor formatuko den hondartzari ere.

relaciones sociales en euskara en Euskal Herria, y este objetivo resulta inalcanzable sin la existencia de un ámbito territorial y una trama social en que esta posibilidad se actualice. Así, este derecho de los pueblos debe ajustarse en el caso vasco para su normalización lingüística de acuerdo con la Declaración Universal de Derechos Humanos, la Convención Europea para la Protección de los Derechos Públicos y las Libertades Fundamentales, los Tratados Internacionales de Minorías y la Jurisprudencia Internacional sobre Derechos Humanos.


Este es el marco en que debe jugar las prioridades del euskara en la Comunidad Autónoma Vasca hoy.

Ciertamente que uno de los problemas graves que aún no ha resuelto la nueva democracia naciente es el que plantean las relaciones culturales y lingüísticas en Euskadi. Padecemos aún de actitudes de proteger, porque les conviene ahora, y no antes, unos derechos individuales sin tener en cuenta el de las lenguas nacionales o propias, a que se refiere la Constitución del Estado, para avalar medidas de tutela positiva a lo que es un bien social en sí mismo; CUYA PROTECCION HA DE PREVALECER EN CASO DE CONFLICTO sobre los intereses privados o particulares.

A todo euskaldun se le debe la posibilidad de poder vivir y desarrollar la totalidad de sus



Ya no estamos en 1886, cuando había necesidad de recurrir a malicias para defender un derecho fundamental: «LAS MUNICIPALIDADES DE GUIPUZCOA EN RELACION CON EL BASCUENCE.» «Con motivo de haberse anunciado la vacante de la plaza de Secretario del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, se ha dirigido el Consistorio de los Juegos Florales euskaros a dicha corporación, exponiendo los argumentos de razón y de derecho que aconsejan considerar, como requisito para la obtención del cargo, el conocimiento de nuestro idioma nativo.



»La acogida, que ha merecido por parte de la corporación municipal, no puede ser más halagüeña, como lo comprueba la comunicación con que ha contestado la misma, y cuyo tenor literal es como sigue: «Se ha enterado el Ayuntamiento, con el mayor aprecio, del atento escrito del Consistorio de su digna presidencia, encaminado a demostrar la conveniencia de que el futuro Secretario de esta municipalidad posea la lengua bascongada.» «Bien hubiera querido el Ayuntamiento exigir esa circunstancia en el anuncio para la provisión de dicha plaza, pero considerando que de hacerlo así incurriría quizá en una extralimitación legal,



## ros cazas derriba de Vizcaya un avión ruso que

intentaba bombear las posiciones conquistadas fracasando en su intento

## Zapalkuntzaren tresna instituzionalak

Betidanik izan du joko diskriminazio lotsagabe honek; Administrazioan, eskolan, prentsan (Joan Mari Torrealdayk, *Jakin* 24 -1982- ongi erakusten duen bezala) eta gure liburuei zentzura eta sua ere! eman izan dietenean.

Hau da, beraz, sarrera honetarako gutxien esan genezakena, gure laburrean, Donostiako hizkuntza eta kultura bideak aurkitu dituzten oztupoak eta egindako ahaleginak aipatzerakoan. Gaur, gure nortasunaren bila berriz lanean abiatu garenean; kontuan eduki behar dugu iragana, etorkizunerako oinarriak eta asmo finkoak jartzeko garaian gaudenean. Euskararentzat egoera eta denboraldi anormalak gaindituko eta egoera normalizatu baten bideetan jartzeko garaia heldu da!

# 1. LEHEN ATALA ZENBAT BIZTANLEK EZAGUTZEN DU EUSKARA. 1981. eta 1986. urtetan. Donostia osoan

## 1. Ikuspegi orokorra

1981. urteko Erroldak edo Zentsuak dionez, Donostiako hiriburuak azaltzen duen *hizkuntz egoera* hauxe dugu:

ONGI hitzegiten du,	%22ak
ZERBAIT hitzegiten du,	%23ak
EZER EZ du ezagutzen,	%55ak

Donostian 1/4 bat baino gutxiago da, beraz, euskaraz *ongi hitzegiten* dakiena; ia beste horrenbeste, *zerbait* dakitela diotenak; erdiak baino gehiago dira beraz, *ezer ez dakitenak*. (1)

(1) **OHARRA:** 1986 urteko Erroldan Euskararen ezagupenari buruz jasotako datu orokorrak honako egoera azaltzen dute:

ONGI hitzegiten du	%26,5
ZERBAIT hitzegiten du	%19,0
EZER EZ du hitzegiten	%54,5

Pasa diren urte hauetako aldaketa nagusia, beraz, ONGI hitzegiten dutenen proportzioa gehiagotzean eta ZERBAIT dakitenen proportzioa gutxitzean datza. Datuetan agertzen denez bost urte hauetan Euskara ZERBAIT besterik ez zekien jende batek Euskara ONGI hitzegiten ikastea lortu du. Emaitza baikorra eta interesgarria, Euskara benetan ikasi nahi duen jende bat ba dagoela adierazten bait du.

Esan behar da, bestalde, EZER EZ dakitenen kopurua ez dela gutxitu. Erdararik mugitu ez den erdaldunen kopurua lehen bezain sendoa eta trinkoa da; eta datu hau kezkarria dela ezin uka, jende multzo batek erdaratik ez mugitzeko jarrera adierazten bait du.

## Donostiako datu hauen parean, hara Gipuzkoakoak:

ONGI ulertu eta hitzegiten du,	%40ak
ZERBAIT ulertu eta hitzegiten du,	%15ak
EZER EZ du ezagutzen,	%45ak

Ezberdintasuna nabaria da: *Donostian* euskara ONGI ezagutzen dutenek, *Probintziako* batatz bestearen erdia baino zertxobait gehiago besterik ez dute suposatzen. Ezer ez dakitenen diferentzia ez da, bestalde, hain nabarmena.

## Ikuspegia zabalduz gero, hara Hego Euskadiko beste hiriburuerekikoa

ONGI EZAGUTZEN dute euskara:

BILBO	% 7
GASTEIZ	% 3
IRUINEA	% 6
DONOSTIA	%22

Hemen garbi ageri da, beste hiriburuetan *euskararen ezagupena* askoz bajuagoa dela; hiriburu hauetan hizkuntz higadura edo erosioa handiagoa izan dela: izan ere, euskara aspalditik desterratua izan baita, eta euskararen presentziaz baino gehiago euskararen

ha preferido prescindir de ella, sin perjuicio de tenerla en cuenta al hacer la clasificación de los aspirantes, pues la considera de reconocida conveniencia".

»Lo que tengo el honor de manifestar a V. como resolución a su mencionado escrito.

»Dios guarde a V. muchos años. San Sebastián, 6 de mayo de 1886» (3).

(3) Euskal-Erria. Revista bascongada. Mayo 1886. Establecimiento tipográfico y librería de Antonio Baroja. El subrayado es de hoy.

# 1. CUANTOS HABITANTES CONOCEN EL EUSKARA. 1981 y 1986

## 1. Panorama general

Según el Censo de 1981 y el Padrón de 1986, la ciudad de San Sebastián nos muestra la siguiente situación lingüística:

	1981	1986
Entienden y hablan BIEN,	22%	26,5%

Entienden y hablan ALGO,	23%	19,0%
No conocen NADA,	55%	54,5%

La diferencia entre los datos de ambas fechas se refleja en el transvase de aquellos que, de saber ALGO han pasado a conocer BIEN el euskara, este dato induce a la esperanza pues significa que no pocos de los que empiezan a aprender terminan sabiendo bien. El bloque de los que desconocen el euskara sigue siendo tan compacto como antes.

ausentziaz hitzegin daiteke, ia desagertu arteraino.

DONOSTIAko datuetara itzuliz: ikus dezagun orain hizkuntz tipologia zehazten dituen diagrama.

Portzentaia hauek adierazten du euskaraz alfabetatuak daudenen kopurua eskasa dela: *euskaraz ongi hitzegiten dakitenen erdia*. Beraz, Donostiako euskaldunen artean gehienak, beste leku gehienetakoak bezala, ez dira euskaraz eskolatuak izan. (2)

(2) **OHARRA:** 1986.ko Erroldako datuen arabera proportzio hori nabarmenki goratu da: Euskara ONGI hitzegiten dutenen lautatik hiruk (3/4) ONGI idazten ere ba dakiela agertzen baita. Datu honek adierazten du Irakaskuntza munduan egiten ari den ahalegina bere fruituak ematen ari dela bai haurren artean bai gazte eta helduen artean.

## 2. Ikuspegi zehaztua

Donostian *euskara ezagutzen dutenen* kopuru osoaren berri jaso ondoren, ikus dezagun *aldagai batzuekin konbinaturik* ezagutza honek zer ematen duen:

SEXUAren arabera:


Sexuaren arabera ez dago ezberdintasun adierazgarririk: *emakumezkoak zertxobait hobeto* ezagutzen dute euskara:

Ezberdintasun handirik ez badago ere, emakumezkoen aldekoa da. Honek frogatzen du aspaldiko ustearen aldeantzikoa dela egia: *gizonezkoak baino euskara gehiago dakitela emakumeak*.

Agian beste kontu bat izango litzateke *erabilpena* aztertuko balitz.

ADINAren arabera:

### DONOSTIARREN EUSKARAREKIKO TIPOLOGIAK



Adinaren arabera *lau talde* handitan banatu dugu biztanlegoa: *haurrak, gazteak, helduak eta adinekoak*.

*Adinekoak* agertzen dira *gehien* euskara ezagutzen duten bezala.


*Haurrak* eta *helduak* gero, neurritz berdintsu.

*Gazteak, gutxien* ezagutzen dutenak.

Honek erakusten dizkigu, alde batetik, galtze prozesu baten errealitatea, eta, bestetik, berreskuratze baten *sintoma baikorra*. Halere, goizegi da berreskuratze sintoma horiek definitibotzat

emateko; urte batzuk igaro eta gero ikusiko dugu baieztatzen diren ala ez. (3)

(3) **OHARRA:** 1986 urteko Erroldaren datuak adinaren arabera aztertzerakoan 1981 urtean hasita zegoen berreskuratze prozesu hori sendotzen doala adierazten dute. Izan ere euskara ONGI ezagutzen dutenen proportziorik altuenak haurren artean agertzen dira adinekoen proportzioak parekatzea lortuz. Gaztetxo eta gazteen artean ere proportzio altuagoak agertzen dira helduen artean baino. Bestalde adierazgarria da euskara EZER EZ dakitenen proportzio baxuenak haurren eta gazteen artean agertzen direla. Horiek dira gehienbat euskarara hurbiltzen ari direnak. Ba da, beraz, itxaropentsu egoteko arrazoirik.



Al lado de estos datos de Donostia, he aquí los de Guipúzcoa


Entienden y hablan BIEN, 40 %.  
Entienden y hablan ALGO, 15 %.  
No conocen NADA, 45 %.

BILBAO, 7%.  
GASTEIZ, 3%.  
IRUINEA, 6%.  
DONOSTIA, 22%.

Vamos a ampliar el panorama a las ciudades de Euskadi-Sur

Conocen bien el euskara:

Aquí se advierte claramente, que el conocimiento del euskara es más bajo en las demás capitales; que la erosión en estas ciudades ha sido mayor, claro, en éstas ha sido desterrado el euskara hace mucho tiempo, y en lugar de hablar de la presencia del euskara, debemos



**SORLEKU**aren arabera:

Espero zitekeen bezala, Donostia bertan eta *Gipuzkoan jaiotakoak* dira euskara ehuneko altuenean ezagutzen dutenak.

Hara datu orokorrak:

*Gipuzkoan* jaiotakoak ehuneko altuena.

*Bizkaian eta Nafarroan* jaiotakoak zerbait beherago.

*Arabian* jaiotakoak gero.  
*Estatu Espainolean* jaiotakoak ia ez dute lortu euskararen ezagupen minimo

*hablar mejor de la ausencia del euskara, hasta casi desaparecer.*

*Volvamos ahora a DONOSTIA, y veamos otro aspecto:*

*Leen y escriben bien el euskara en Donostia: 11,7 %.*

*Lo que significa que la población alfabetizada en euskara es sólo la mitad de los que saben hablar bien la lengua.*

## 2. Visión más detallada

*Según SEXO:*

*Las mujeres conocen el euskara algo mejor:*

**CONOCEN BIEN** el euskara:

*Mujeres, 23,5 %*

*Hombres, 20,2 %.*

*Según EDAD:*

**PERSONAS DE EDAD** aparecen como las que conocen mejor el euskara.

**NINOS** y **PERSONAS MADURAS**, luego,

bat; ezta aspaldi hemen bizi badira ere. *Euskal Herriko lurraldera sartu dira, baina euskararen munduan ez.*

**IRAKASKUNTZA**ren arabera:

Biztanlegoa bi taldetan banaturik aztertu dugu:

1. Orain **IKASTEN ARI DIRENEN** taldea: euskara ondoen ezagutzen duten ordenan:

1. *Erdi maila* eta *goi mailako* karre-rak egin dituzten Unibertsitariena.
2. *BBB-UBI* eta *O.H.O.ko* ikasleak.
3. *L.H.ko* ikasleak.

Badugu beste datu aipagarri bat:

*Ikasleen %35 euskara ZERBAIT ezagutzen duela.*


Honen zergatia: Euskararen normalizatorako legea Irakaskuntzan ezarri berria denez gero, asko dira euskara ikasten hasi dena; nahiz eta oraindik zerbait besterik ikastea lortu ez badute ere.

Espero da zerbait horretan geratu gabe euskararen ezagupen osoa lortzeraino aurrera joko dutela.

2. **IKASKETAK AMAITU DITUZTEN**en taldea.

Euskara ondoen ezagutzen dutenak:

1. *Unibertsitarien* maila.



*sensiblemente igual. JOVENES, los que lo conocen menos.*

*Esto nos muestra, por un lado, la realidad de un proceso de pérdida, y, por otro, un sintoma de recuperación, que, según los datos del Padrón de 1986, parece confirmarse debido al esfuerzo de los Centros en los que se enseña el euskara y en euskara.*


*Según LUGAR DE NACIMIENTO:*

*Como cabía esperar, los nacidos en Donostia*

*mismo o en Guipúzcoa son los que tienen el porcentaje mayor:*

*Porcentaje mayor los nacidos en GUIPUZCOA. Luego los nacidos en VIZCAYA y NAVARRA. Después los nacidos en ALAVA.*

*Los nacidos EN EL RESTO DEL ESTADO ESPAÑOL son, naturalmente, los que tienen el porcentaje más bajo; han venido a vivir aquí, pero no han entrado aún en el mundo del EUSKARA.*



2. *L.H.* eta *O.H.O.* ikasleak, maila berdinean.

3. *BBB-UBI*ko ikasleak maila eskasenean.

Beraz, *erlazio estu bat dago ikasketen maila eta euskararen ezagupenaren artean*: zenbat eta ikasketa maila

altuagoa, euskararen ezagupen maila altuagoa.

Hemen garbi agertzen da duela zenbait urte ikasketak egin zituztenek ez zutela euskaraz ikasketak egiteko aukerarik izan.

**SOZIO-PROFESIONAL** mailak.

Según ESTUDIOS:

1. Los que **ESTAN ESTUDIANDO AHO-**  
**RA.** La clasificación, según el conocimiento del euskara, es la siguiente:

- 1.<sup>a</sup> Universitarios que han cursado carreras de **NIVEL MEDIO** o **ALTO**.
- 2.<sup>a</sup> Estudiantes de **BUP-COU** y **EGB**.
- 3.<sup>a</sup> Alumnos de **F.P.**

Un dato mencionable:

35 % de los estudiantes conocen **ALGO** de

euskara (debido a que ya se ha establecido la Ley de Normalización del Euskara).

2. Los que **HAN TERMINADO SUS ESTUDIOS** se clasifican según el conocimiento del euskara:

- 1.<sup>a</sup> Nivel **UNIVERSITARIO**.
- 2.<sup>a</sup> Los alumnos de **F.P.** y **E.G.B.**
- 3.<sup>a</sup> Los estudiantes de **BUP-COU** tienen el nivel más bajo de euskara.

Por tanto, hay una estrecha relación entre nivel de estudio y conocimiento de euskara.

*Populazio aktiboa aztertuz:*

Euskaldunen ehuneko altuenak:

1. Nagusi txikiak eta Merkatariek (1).
2. Biztanlego ez aktiboa (etxeoandre, jubilatu...), Nagusi handiak eta mailaertainekoak.
3. Zerbitzuetako enpleguak.
4. Langileak (kualifikatu eta kualifikatugabeak).

*Interesgarria* hemen:

Euskara *gutxien* ezagutzen dutenen mailak, bajuenak dira: langile kualifikatu gabeak.

Euskara *gehien* ezagutzen dutenak, Erdi mailakoak dira.

*Inmigranteak* dira zerikusi handia dutenak: gehienak langile ezkualifikatuak bait dira.

*Beste profesio maila guztiak* tartean agertzen dira.

### 3. Hizkuntz transmisioa familia bidez

Bestalde, eta familia mailan egin den ikerketak agertzen duenez:

Donostian, *hizkuntzaren transmisioak famili barnean porrot nabarmena egiten du*.

Izan ere, euskara ulertzeko eta hitzegiteko gaitasun ona duten gurasoen (%76,3) seme-alabak bakarrik ezagutzen du euskara gurasoen maila berdinean.

*Galtzen duten gehienak erdi bidean gelditzen dira* (zerbait ulertu, zerbait hitzegin), eta euskara guztiz galtzen dutenen kopurua %6,2.

Belaunaldi batetik bestera galtzeko, asko da.

Bestalde, *jatorriz euskararik ez dakiten eta euskara ikastea lortzen duten guraso euskaldunen seme-alabak ez dute aurrekoen galera konpensatzen: guraso erdaldunetatik jaio eta gazteleeratik mugitu ez diren seme-alaben proportzioa %73,4koa da, eta %26,6ek gutxi edo gehiago euskara ikastea lortzen duten arren, gehiengo ez da zerbait ulertu eta hitzegitera besterik iristen: %2,1 bakarrik da euskararen ulermen ona eta hitzegiteko gaitasun bat lortzen duena.*

Jakina, *azkena aipatu ditugun zenbakiak Irakaskuntza zentroetan egiten diren ahaleginei esker lortu dira*: bai haurren mailan eta bai gazte eta helduen

mailan biztanlegoaren euskalduntzea lortzetik datozenak. *Ikastola eta beste*

(1) Esan behar da koadro edo taula guztietan apaiz, erlijioso, artista eta horrelakoak direla euskararen ezagupen maila altuenak agertzen dituztenak, baina hauen kopuru absolutuak urriak direnez gero, gure ikerketa honetan ez ditugu talde bezala kontutan hartuko.

También se desprende de estos resultados el hecho de que cuando hicieron sus estudios no tuvieron oportunidad de estudiar euskara como es el caso en la actualidad.

Los niveles **SOCIO-PROFESIONALES**:

Porcentajes más altos de los que conocen euskara: **PARTIENDO DE LA POBLACION ACTIVA**:

- 1.<sup>a</sup> El pequeño patrón y los comerciantes.
- 2.<sup>o</sup> Población no activa (amas de casa, jubilados...). Los patrones grandes y los niveles intermedios.

3.<sup>o</sup> Empleados de Servicios.

4.<sup>o</sup> Trabajadores (cualificados y no cualificados).

Aquí **DESTACA POR SU INTERES**:

Los que conocen menos la lengua vasca, son los de los niveles socialmente inferiores: los trabajadores no cualificados.

Los que conocen mejor el euskara, los de Nivel Medio.


Los **INMIGRANTES** tienen mucho que ver: la mayoría son trabajadores no cualificados.

ikastetxeak, alde batetik, eta bestetik Euskaltegiak, ari dira garai batetan familiak betetzen zuen eginkizuna betetzen.

ZERBAIT besterik ezagutzen ez duen biztanle multzo honen garrantzia euskararen ikaste prozesuan aurrera jarraitzen duen edo eta (gaurko egoe-

ran gelditzen den) lehengo egoerara itzuliko den jakitean datza zerikusia.

Lehen kasuan euskaldunen taldeen indartze bat suposatuko luke Donostiako hirian; aurkako kasuan, berriz, gaztelera indartuko litzateke.



TODOS LOS DEMAS NIVELES PROFESIONALES figuran en los puestos intermedios.

## CONCLUSION DE ESTA PRIMERA PARTE

1. De los datos que hemos dado hasta ahora podemos sacar la primera conclusión:

Por una parte, que el conocimiento del euskara en Donostia es un fenómeno minorizado, puesto

que sumados los que conocen BIEN (22 %) y ALGO (23 %), no llegan a la mitad (45 %).

Que la población vascófona es hoy un grupo minorizado significa:

1) Que lo que antes era mayoría clara ha venido reduciéndose hasta ser minoría, y no de por sí, sino como consecuencia de la presión de otra lengua que durante generaciones ha sido potenciada a través de la administración política con el propósito de ir sustituyendo a la anteriormente existente.

## Donostiako auzoetan EUSKARAREN EZAGUPENA. 1981

Orain artekoan, Donostia osoa aztertu dugu.

Baina, Donostia osatzen duten auzoak ez dira homojeneoak; batetik bestera ezberdintasun adierazgarriak ba dira, eta batzuk, nabarmenak. Hara euskararen egoeran kontuan harturik, zeintzuk diren berezitasunak:

### EUSKARAREN OINARRIZKO EZAGUPENA

Ikerketa sozio-linguistikoko hau egite-rakoan, Donostiako 11 auzoak bost taldetan bildu ditugu:

#### 1. zona

AUZO EUSKALDUNENAK.

Zubieta, Añorga, Igeldo eta Astigarraga.

Hiri inguruko zona. 6.300 biztanle. Euskararen ezagupena: %59 tik %82ra.

#### 2. zona


AUZO NAHIKO  
EUSKALDUNAK.

Alde Zaharra, Erdigunea, Amara Zaharra, Aiete eta Antiguoa.

Biztanle kopurua, 46.192. Euskararen ezagupena: %30 / Bataz bestekoa baino altuagoa.

2) Por otra parte, aunque la minoría euskaldun ha llegado con el tiempo a esta situación, constituye una fracción significativa, pues si tomamos en cuenta los que hablan euskara bien o algo, suman 75.000 personas, y está en situación de funcionar como una comunidad lingüística que cubra la totalidad de las funciones lingüísticas.

2. Hemos dicho que la realidad del euskara no es homogénea, y he aquí las pruebas:



#### 3. zona

AUZO ERTAINAK.

Amara Berria eta Gros. Biztanle kopurua, 47.830.

Euskararen ezagupena:

%19tik %22ra / Bataz bestekoaren antzekoa.

#### 4. zona

AUZO NAHIKO  
ERDALDUNDUAK.

Egia, Martutene, Loiola, Marrutxipi, Intxaurren, Bidebieta. Biztanle kopurua, 47.465.

Euskararen ezagupena:

%16tik %17ra / Bataz bestekoa baino baxuagoa.

#### 5. zona

AUZO ERDALDUNDUENAK.

Altza, Herrera, Sta. Barbara. Biztanle kopurua, 20.678.


Euskararen ezagupena:

%10 / Auzo guztietik baxuena.

1) Las diferencias entre barrios por razón de lengua son notorias: mientras unos tienen un alto porcentaje de euskaldunes, otros cuentan con proporciones muy bajas. En cuanto a demografía, los que son en número, y también en dinámica, mejor situados son los barrios no vascófonos.

2) Las diferencias lingüísticas en razón de grupos de EDAD son claras. Son los mayores en edad los que conocen euskara en mayor proporción; en mayor proporción que los adultos. Por

## HIZKUNTZ TIPOLOGIEN BANAKETA DONOSTIAKO AUZOETAN



PAG. 12  
MAPA

otro lado, son los jóvenes los que figuran en proporción más baja, y en algo más alta, los niños. En cuanto a estos últimos, los niños, parece subir un poco más gracias a la labor de las ikastolas y algunos centros de enseñanza.

3) Teniendo en cuenta el lugar de nacimiento: por ejemplo, los nacidos en Guipúzcoa, en las demás provincias, fuera del País Vasco, dan porcentajes diferentes, como se esperaba.

4) En cuanto al origen social y procedencia cultural, son datos que inciden en el conoci-

miento del euskara, pero no tienen la importancia que los factores anteriores.

3. Que la población euskaldun de Donostia está diseminada en distintos barrios. Por causa de esta diseminación, se diría que más que una presencia del euskara en la ciudad de San Sebastián se siente la ausencia o la latencia del euskara; ya que el euskara está escondido, como enterrado. Aunque en Donostia hay gente euskaldun, porque la hay, no asoman los euskaldunes a la vida social diaria, no a nivel de barrio ni siquiera en los distintos sectores.

ZONA EUSKALDUNAK, biztanle aldetik garrantzi gutxien dutenak dira.

ZONA ERDALDUNDUAK, biztanle kopuru altuenak dituztenak.

*Demografiak, beraz, euskararen aurka jokatzeko du*

*Geografiak ere gauza bera esan daiteke, periferiako auzoak bait dira euskaldunenak hiribarnekoak erdaldunagoak dira.*

SEXUAren arabera:

*Lehen, Donostia orokorki harturik, esan dugu emakumezkoak euskara gizonetzkoak baino zerbait gehiago eza gutzen duela.*

*Orain, azterketa zonaka egin eta gero, gauza beretsua esan genezake.*

ADINaren arabera:

*Lehenagoan gara hemen ere.*

*Adinekoak dira gehien euskara ezagutzen dutenak.*

*Haurrak eta helduak gero.*


*Gazteak, euskara gutxien dakitenak.*


Bada kasurik, bai euskaldunen eta baita erdaldunen artean ere, *helduen euskara haurren proportzio handiagoan agertzen dena.*

Beraz, euskara *galtzen* ari da, batetik, eta *berreskuratze prozesuaren az-tarnik ez, bestetik.*

SORLEKUaren arabera:

Ezaguna da lotura hau, lehen esan bezala; *no-latan jokatzeko dute auzoek bakarka hartuta?*





### **Zona euskaldunetan**

Donostian eta Gipuzkoan jaiok dira ondoen egiten duenak, lehen bezala. Nafarroan jaiok, bigarren, *lehen hirugarren*.

Bizkaian jaiotako, hirugarren, *lehen bigarren zirenak*.

*Hemen nabari dena zera da: Nafarroako herri euskaldunetatik etorri dela jendea auzo euskaldunetara.*

### **Zona ertainetan**

Donostian eta Gipuzkoan jaiok ondoen egiten dutenak.

Bizkaian eta Nafarroan jaiok direnak. Araban jaiok azkenik.

*Donostia osoan lehen aurkitu dugun era berean.*

### **Zona erdaldunduetan**

Bizkaian jaiok dira hemen *euskaldunenak*.


Donostian eta Gipuzkoan jaiok datoz gero.

Nafarroan jaiok, hurren.

Kasu berezi bat dugu ALTZAko *auzoan*:

Bizkaia eta Nafarroatik etorriak euskara gehiago ezagutzen dute Gipuzkoan jaiok baino.

Honek adierazten duena, zera da: *Donostian eta Gipuzkoan jaiok arren erdaldunak diren hainbat pertsona bizi dela Altzan, beste kanpotar askorekin batera.*



4. *Se observa que el proceso de transmisión a través de la familia está fallando ostensiblemente. Más o menos la cuarta parte de los padres que tienen un conocimiento suficiente de la lengua, no transmiten a sus hijos, ni a nivel de comprensión ni de expresión, y en los casos en que lo hacen al comienzo, en muchos casos los receptores van perdiendo la lengua. Así ocurre a cada generación una pérdida significativa de la vitalidad lingüística.*

5. *La quinta consecuencia está estrecha-*

*mente unida a estas cuatro: las actividades que se están desarrollando hoy en la enseñanza, tanto a nivel infantil en la Ikastola como en los demás centros, por un lado, y en los euskaltegi de adultos y academias de enseñanza, por otra, a nivel de jóvenes y adultos, no son suficientes para subsanar las pérdidas que se advierten a nivel de transmisión familiar.*

*Hay que tener en cuenta que las actividades de los centros de enseñanza son todavía nuevas (visto desde 1981, en que se han producido los*

*Jakina da auzo hau izan dela guztien artean kanpotar gehien hartu duena.*

IKASKETA MAILAren arabera

### Zona euskaldunetan

*Euskara ongi ezagutzen dutenen kopurua, ikasketa maila guztietan proportzio berdintsua. Ikasketak egiten edo amaituak, berdin da.*

*Goi mailako ikasketak egin dituztenak ez dira behe mailakoak edo egin dituztenak baino euskaldunago.*

*Espero zitekeen bezala, zerbait dakitenean proportzioa beste auzoetan baino bajuagoa da.*

### Zona ertainetan

*Hemen, berriz, lehen Donostia osoan ikusitako proportzio berdintsuak agertzen dira ikasketa maila ezberdinetan: goi mailako ikasketak eginak edo egiten ari direnak agertzen dute euskararen ezagupen altuena.*

### Zona erdaldunduetan

*Orain ikasketak egiten ari direnak: euskara zerbait dakitenean proportziorik altuena.*

*Eta hau: gutxi edo asko, ikastetxeetan euskara ikasten ari direlako.*

*Proportzio hauek, behe mailako ikasketak egiten ari direnen artean dira altuenak.*

*Ikasketak amaitu dituztenen artean: goi mailako ikasketak egin dituztenen artean ageri da euskararen ezagupen mailarik altuena.*


### SOZIO-PROFESIONAL MAILAK

*Lehen, Donostia orokorki hartzerakoan, ikusi genuen: Ugazaba txikien, merkatarien, e.a.en, maila zela euskaldunena, eta langileena zela erdaldunena.*

*Zer gertatzen da orain?*

### Zona euskaldunetan

*Auzo bakoitzak bere egitura propioa du:*



*Langileak (kualifikatuak edo gabeak) dira batzutan euskaldunenak.*

*Nekazariak beste batzuetan.*

*Ugazaba txikiak bestetan; alderantziz ere gertatzen bada ere.*

### Zona ertainetan

*Bataz beste lehen bezala agertzen da: erdi mailako ugazabak, merkatariek, e. a., dira euskara ongien ezagutzen dutenak.*

### Zona erdaldunduetan


*Hemen ere berdintsu bada ere: jakina da zona honetan dagoela langile kualifikatu gabeko gehiena, eta, beraz, erdaldunena.*

### ATAL HONEN LABURPEN GISA

1. **Zona euskaldunak** dira Donostia osoko bataz bestekotik gehien aldentzen direnak.
2. **Zona ertainak** berriz, Donostia osoko bataz bestearen hurbil aurkitzen direnak.
3. **Zona erdaldunduak ere**, hurbiltzen dira, neurri bajuago batetan bada ere.

*Honen zergatia nahiko argi dago: Azken bi talde hauek: Zona ertainak eta erdaldunak dute demografi aldetik pisurik handiena.*

*Eta honetxegatik, bataz bestekoan inzidentziarik handiena.*




*datos que recogemos en este apartado), considerado como proceso entero, y es demasiado temprano para hacer una valoración general concluyente.*

*Los datos del Padrón 1986, sin embargo, ponen de manifiesto que dicho proceso se va consolidando gracias al esfuerzo que se está realizando en favor de la enseñanza DEL y EN EUSKARA en diferentes centros de enseñanza.*

*En consecuencia, todo parece indicar que en la medida en que se vayan afianzando las*

*iniciativas en favor de la recuperación del euskara en los diferentes ámbitos de la vida social, la ciudad de Donostia puede pretender alcanzar el objetivo básico de la normalización del uso del euskara.*





## LEHEN ATALAREN ONDORIOAK

1. Orain arte emandako datu haue-  
tatik atera genezaken lehenengo ondo-  
ria zera da:

– Alde batetik, euskararen ezagupena  
Donostian fenomeno minorizatua dela,  
biztanlegoaren erdiraino ez bait dira  
iristen euskara ONGI ezagutzen dute-  
nak (%22) eta ZERBAIT ezagutzen  
dutenak (%23) biak elkarturik beraz  
(%45).

*Donostiako euskaldungoa* talde mi-  
norizatua dela esateak adierazten du.

– Lehen maioria izatetik minoria iza-  
tera pasa dela, eta ez bere kabuz, baizik  
eta kanpotik hizkuntza arrotz bat be-

launaldietan zehar bultzatzen eta in-  
dartzan jarri dutelako euskararen or-  
dez sartzeko asmoz.

– Bestalde, Donostiako euskaldun-  
goa minoria bat izatera jaitsi bada ere,  
*oraindik talde garrantzitsu bat osa-  
tzen duela*. Izan ere, kontutan hartzen  
badugu euskara ongi edo/eta zerbait  
dakien jendea 75.000 pertsonako talde  
bat dela, komunitate linguistiko bat  
bezala funtzionatzeko bere osotasun  
guztian dagoela.





2. Euskararen errealtatea ez dela homogenea, baizik eta errealtate heterogeneoa, eta hala delaren frogak hauek dira:


– Auzoen arteko hizkuntzarekiko ezberdintasunak guztiz nabariak dira: auzo batzuk euskaldunen portzentai altuak dituzten bitartean, beste batzuk oso portzentai baxuak dituzte. Demografia aldetik kopuru eta dinamika handiena dutenak auzo erdaldunenak dira.

– Adin taldeen arteko hizkuntzarekiko ezberdintasunak ere oso nabarmenak dira. Adinekoak dira euskara ehuneko altuenetan ezagutzen dutenak, helduak baino ehuneko altuagotan. Bestalde, gazteak dira proportziorik baxuenak agertzen dituztenak eta zertxobait altuagoak dira haurren proportzioak. Azken hauetan ezagupenaren maila zertxobait altuagoa nabari da Ikastola eta beste ikastetxen lanari esker.

– *Jaiotza lekua* kontutan harturik, adibidez Gipuzkoan jaiotakoak, *Euskal Herriko beste probintzietan*, *Euskal Herrikan kanpo* jaiotakoaren artean, espero zitekeen bezala, ezberdintasun handiak nabari dira.

– Pertsonen jatorri sozialaren arabera eta jatorri kulturalaren arabera ezberdintasun linguistikoak ere nabari dira, baina ez dute aurreko faktoreek hainbat garrantziarik.

3. Donostiako euskaldungoa auzoetan zehar barreiatu eta sakabanatu aurkitzen dela. Sakabanaketa hau dela eta, Donostiako hirian euskararen presentzia baino gehiago euskararen ausentzia edo latentzia nabari dela; euskara ezkutaturik, lurperaturik bezala, aurkitzen bait da. Izan ere Donostian euskaldun jenderik egon, ba dagoen arren, ez dira agertzen eguneroko bizitza sozialean ez auzo mailan ez eta gizarteko sektore ezberdinetan.



4. Familia bidez egiten den hizkuntzaren transmisioak nabarmenki huts egiten duela agertzen da. Gutxi gora behera euskararen ezagupen maila ona duten gurasoen laurden batek ez die hizkuntza transmititzen ulermen eta hitzegiteko maila berdinean bere seme-alabei, eta hasera batetan egiten duten kasu askotan, denboraz hizkuntza galtzen joaten dira. Horrela belaunaldi bakoitzean hizkuntz galera nabarmen bat gertatzen da.

5. Bostgarren ondorioa aurrekoa-rekin hertsiki loturik dagoena da: gaur egun irakaskuntzan egiten diren ekinaldiak bai haurren mailan Ikastola eta beste ikastetxetan, alde batetik, eta bai euskaltegi eta irakaskuntza akademitan, bestetik, gazte eta helduen mailan ez da nahikoa sendiaren bitartez eginiko transmisioan gertatzen diren galerak konpentsatzeko.

Kontutan eduki behar da, Irakaskuntza Ikastetxeetako ekinaldiak nahiko berriak direla oraindik, prozesu oso edo orokorra bezala, eta oraindik azkarregi da prozesuaren balorapen orokor bat egin ahal izateko.



## 2. BIGARREN ATALA ZENBAT ERABILTZEN DA EUSKARA. 1985

Azterketa egiterakoan erabili dugun hariari jarraituz honako ondorio nagusiak azpimarratu beharra ikusten dugu (1):

### 1. LEKU PUBLIKOETAN EUSKARAREN ERABILPENARI BURUZ

Lehenik, euskara mintzatuaren erabilpenari buruz garbi agertu zaigu euskara ongi dakitenen hiritik batek besterik ez duela euskararik erabiltzen, eta zerbait dakitenak ere kontutan hartzen ba ditugu, bostetik batera jaisten dela proportzioa.

Datu hau benetan adierazgarria eta kezagarria da.

Hau da hizkuntzaren ordezkatzeko prozesuaren sintoma garbienetako bat. Izan ere, hizkuntza bat dakitenek erabiltzen ez dutenean sartzen da galbidearen prozesuan, eta esan beharra dago Donostiako kale eta enparantzetan, pasealeku eta jolastokietan euskara oso gutxi erabiltzen dela.

(1). Gure azterketan ez da agertzen euskararen erabilpena erakunde ofizialetan, bereziki Udal Zerbitzuetan nolakoa den, duela urte batzu azterketa hori egin izan zelako.

## 2. GRADO DE UTILIZACION DEL EUSKARA. 1985

### 1. UTILIZACION DEL EUSKARA EN LUGARES PUBLICOS

Primero, en cuanto al euskara hablado sólo uno de tres que sabe bien euskara lo utiliza; y si tenemos en cuenta aquellos que saben algo, la proporción baja de uno a cinco.



Este dato es verdaderamente preocupante.

Porque constituye el síntoma más claro de la sustitución de una lengua por otra. Porque si los que saben una lengua no la utilizan está entrando en el proceso de su pérdida.

Por otra parte, teniendo en cuenta la edad de los euskaldunes, está también claro que los que menos lo utilizan son los jóvenes, y luego los adultos, precisamente las edades más críticas, puesto que el futuro de la lengua está en esos grupos de edad. Son ellos los que deciden el

Hemen  
euskaraz ez dakienak  
berak jakingo du  
zergatik ez dakien.

Baina hema  
euskaraz ez dakienak  
digu uzten  
euskaraz egiten.

Baina eta hema  
euskaraz jakin  
euskaraz mintzatzeko  
z denak ere  
ez digu uzten  
euskaraz egiten.


Bitoriano Gando

Bestalde, euskara erabiltzen dutenen adina kontutan hartzen badugu, garbi agertzen da, baita ere, euskara gutxien erabiltzen dutenak gazteak direla eta gero helduak, adin talderik kritikoenak, hain zuzen. Euskararen etorkizuna adin talde horien baitan bait dago.

Heurak dira transmisio prozesuari jarraipena garantizatu edo etena sortu dezaketenak.

Bigarren: Euskara idatziari dagokionez benetan eskasa da: euskara bakarrik eta erdararekin batean idatzirik agertzen dena, biak harturik ere ez bait da hirutik batera iristen. Euskara ongi eta zerbait dakitenen proportzioaren erdia baino zerbait gehiago besterik ez du suposatzen euskaraz idatzitakoaren kopuruak.

Euskara idatziari benetan tratamendu marginala ematen zaio; nahiko frogatua gelditu da azterketa guztian zehar.




proceso que garantiza la continuidad o lo interrumpen.

Segundo: En cuanto al uso escrito del euskara, es verdaderamente escaso: lo que se escribe en lengua vasca, aún incluido cuando es bilingüe, no llega de uno a tres. Referido al euskara hablado, la proporción no supone sino un poco más de la mitad proporcional de los que conocen el euskara bien y algo sumados.

Al euskara escrito se le da un tratamiento marginal, como ha quedado bien probado en el

curso de la encuesta. Por otro lado, tenemos que subrayar la importancia principal que tiene la lengua escrita. Es imprescindible que en el proceso de euskaldunización de la ciudad de San Sebastián se le dé al euskara escrito la importancia especial que ahora no tiene. Sobre todo en las zonas y barrios que son casi enteramente no vascófonos, la presencia escrita en el nombre de las calles, los rótulos, en los nombres de las tiendas y bares y toda clase de establecimientos, servirá para recordar que esta

## SAGARDOTEGUIA · SIDRERIAS



Bestalde, azpimarratu behar da hizkuntza idatziak duen garrantzia. Izan ere kaleen izenetan, errotuluetan, denda eta tabernen izenetan eta mota guztietako establezimenduen izenetan, alde batetik, eta mota guztietako publizitatean, bestetik, erabiltzen den hizkuntza bat herritarrek begiekin ikusiz irakurri egiteaz gainera begietatik, prozesu psikolojiko batez barneratzen da, eta kanpoko hizkuntza barne hizkuntza bilakatzeraino iristen da.

Horregatik du garrantzi handia euskara idatziari idazmota guztietan sarbidea emateak.

Donostiako hiriaren euskalduntze prozesuan ezinbestekoa da euskara idatziari orain ez duen garrantzi berezi bat ematea. Giro guztiz erdalduna duten zona eta auzoetan, batez ere, euskara ere ba dela adieraziko du, esistitzen duela, alegia, eta publizitatea egiteko edo establezimenduen izenak adierazteko ere balio duela agertzeak garrantzi handia du.

lengua existe, y que también sirve para usos comerciales.

## 2. PRESENCIA DEL EUSKARA EN LOS SERVICIOS SOCIALES

Aquí hay que subrayar dos o tres puntos: Primero, la proporción de empleados euskaldunes es en este campo superior a la media; es un dato que hay que tener en cuenta, y el solicitante debe hacer uso del euskara al acercarse a estos servicios. Otro punto muy a tener en cuenta es la

manera en que estos empleados se sirven de su lengua en su trato profesional, y aún entre los empleados mismos y fuera de su puesto de trabajo. Hemos podido comprobar que entre empleados euskaldunes sólo usan el euskara uno de cada tres, y un poco más al responder a sus conciudadanos. Este desequilibrio que existe entre el euskara que se conoce y el que se usa va empujando cada vez más al euskara a la diglosia, y si además de lo que hemos venido señalando se añade este quedarse al margen de la función de una lengua en los servicios más

## 2. EUSKARAREN PRESENTZIA GIZARTEKO ZERBITZUETAN

Gizarteko Zerbitzuetan euskararen presentziari dagokionez, azpimarragarriak diren bizpahiru puntu ageri dira:

Lehenik, *gizarteko zerbitzuetan euskara dakiten enplegatuen proportzioa hirian orokorki harturik baino altuagoa dela*. Datu hau kontutan hartzekoa da, enplegatu hauek gaur egiten duten proportzioan baino euskara gehiago erabiltzeko gai direla, irakasten bait du. Egia da sektore tradizionaletan

gehiago dagoela sektore modernoetan baino; halere herritarrei euskaraz zerbitzeko gaitasuna zerbitzu gehienetan ba dagoela esan beharra dago (eta hauen erabilera herritarren eskuetan dagoela, galderak euskaraz eginaz besterik ez bada ere).

Beste kontu bat, eta oso ezberdina gainera, zera da: *euskara dakitenetatik zenbatek erabiltzen duten* bai elkarren artean bai herritarrekin. Eta ikusi ahal izan dugunez *enplegatu euskaldunen artean hirutik batek bakarrik erabiltzen du euskara eta zerbait gehiago herritarrekin*, herritarren eskaerari erantzunez.



*Ezagupen eta erabilpenaren artean dagoen desoreka honek darama euskara bere egoera diglosikoan murgiltzera eta lehenaz gainera gizarte bizitzako funtzio nagusietatik kanpo gelditzera. Izan ere gizarteko zerbitzuetan eta bereziki merkatal eta komertzial mundu horretan euskarari sarbiderik egiten ez zaion neurrian gizartetik guztiz bazterreratua eta sektore marginal batzuetan mugatua bizitzera kondenatua gelditzen da.*

*Alor hauetan euskararen erabilpenaren normalizazioa lortzea ezinbesteko orokor bat lortu nahi bada.*

*necesarios, estamos condenando al euskara a la muerte.*

*Más palabras aquí, sobran.*

## 3. LA PRESENCIA DEL EUSKARA EN LAS SOCIEDADES

*En las sociedades que se han analizado (deportivas, culturales y político-sindicales), aunque se hallan en trances diferentes, hay problemas lingüísticos que son comunes a todas ellas.*

*Lo primero que llama la atención es que la proporción de socios que son euskaldunes es comparativamente más alta que la media vasca.*

*Este es un dato principal porque muestra que existe la capacidad de que funcione en euskara.*

*Hay aquí, claro es, también un problema de uso real de la lengua, porque no pasa de ser simbólico, tanto en su forma hablada como escrita, y el resultado aquí también no hace sino consolidar la tendencia diglósica, de pérdida abismal.*



### 3. EUSKARAREN PRESENTZIA ELKARTEETAN

*Aztertu diren elkarteen artean (Kirol, Kultur, Mixto eta Politiko-Sindikaletan), egoera ezberdinak agertzen badira ere, ba da guztietan nabarmentzen den hizkuntz arazorik.*

*Lehenik agertzen dena, elkarte horietako bazkideen artean euskaldunen proportzioa herritarrena orokorki harturik baino altuago dela. Datu hau garrantzi handikoa da, euskaraz funtzionatzeko gaitasun potentzial bat adierazten bait du.*

*Beste kontu bat da, hemen ere, euskararen erabilpenarena.*

*Izan ere erabilpen nahiko sinbolikoa bait da elkarte gehienetan egiten dena, nola hitzez, hala idatziz, eta lehen aipatutako egoera diglosikoa sendotu eta kontsolidatu besterik ez bait da egiten. Egoera honetatik irtetzeko eragina elkarte horietan bertan dagoen euskaldungotik etorri beharko luke, horretarako argibideak ezezik behar diren laguntzak ere eskeintzen zaizkielarik.*



### 4. EUSKARAREN PRESENTZIA INDUSTRI LANTEGIETAN

*Industri lantegiei buruz ezin da esan aurreko ataletan esan dugunik, bertako enplegatuak ez bait dira herritarren batz bestekoa baino euskaldunagoak, alderantziz baizik.*

*Garbi da, izan ere, industri lantegietan lanean diharduen jendetzatik gehiengo nabarmena erdalduna dela. Proportzio horietan altuena lantegi handitakoa da (%80) lantegi txikietakoa (%70) ingurukoa den bitartean. Lantegi handietan dago, beraz, kanpotik etorri den jenderik gehiena.*

*Kontuan hartzen badugu, beraz, langileak euskaldun direnean ere laneko hizkuntz giroa guztiz erdalduna dela, zer esanik ez dago langileen gehiengo nagusia ere erdalduna denean zer gertatzen den. Erdararen nagusitasuna, laneko hizkuntz bakarra erdara izateraino. Ez da, beraz, euskararen-tzat lekurik gelditzen.*

*Euskararen erabilpena, hitzezko elkarrizketa marjinaletara mugatzen da, ez da erabiltzen idatziz; ohar edo anuntzioen batetan eta erdararekin batera izan ezik. Batzar nagusietan eta komiteko bileretan inoiz ez da euskararik erabiltzen.*

*Cuando la solución está en la conciencia de los euskaldunes. Sin más excusas.*

### 4. LA PRESENCIA DEL EUSKARA EN LAS EMPRESAS INDUSTRIALES

*En cuanto a las empresas industriales, no se puede decir lo dicho en los apartados anteriores, puesto que estos empleados de la industria no son proporcionalmente más vascófonos, sino todo lo contrario.*

*Este es un hecho claro, sobre todo en la gran industria (80 % no vascófonos); pero también es evidente en la pequeña (70 %). En las grandes empresas trabaja la mayor parte de la población inmigrante. Si tomamos, por tanto, en cuenta que incluso cuando los trabajadores son euskaldunes el ambiente es lingüísticamente no vascófono, no hay nada que añadir aquí, sino reconocer la enormidad de nuestra tragedia lingüística.*

*No queda aquí ningún espacio para el euskara: apenas la marginalidad de algunas palabras,*


*porque aparte de algún que otro anuncio bilingüe, no existe presencia del euskara ni en las asambleas generales ni en las reuniones de los comités. Así, no es de extrañar que después de ocho horas diarias de los obreros euskaldunes en este mundo del castellano, el resto se vea arrastrado en la misma dirección.*

*Tenemos que insistir en el hecho de que si no se halla medio de que el euskara entre dentro del mundo del trabajo, está perdido. Como acaba de decir el sociolingüista Fishman en estos días: si no se hace un lugar para una lengua en el*

*mundo del trabajo, ¿para qué sirve la Educación en esta lengua?*

*Si la lengua que se enseña en la escuela no tiene continuidad en el mundo del trabajo, puede terminar con ella.*

*Este es el mérito fundamental de los eibarreses: consiguieron que su lengua entrase en sus fábricas; algunos se pueden mojar de los erderismos que contiene, pero la muerte lingüística de estos puristas acarrearía la muerte lingüística de todo un pueblo.*




Bestalde, kontutan hartzen badugu langileek egunero 8 edo 10 ordu laneko mundu horretan pasatzen dituztela, erdararen munduan murgildurik, erraz jabetuko gara erdararen eragina zen-baterainokoa den lantegia barruan, eta gero kanpoan ere.

Inoiz edo nonbait euskararen egoera diglosikorik aipatzekotan, laneko munduaz hitzegiterakoan aipatu beharko litzateke. Bertan euskararentzat tokirik ez bait da gelditzen; ezta euskaldunen artean hitzegiteko ere, gai guztiz mar-jinaletaz ez bada behintzat, laneko gaiez kanpokoak, alegia. Eta *esan beharra dago, laneko mundu honetan euskarari sarbiderik egiten ez bazaio, euskararen normalizazio prozesua burutzeko alor nagusi baten faltan geldituko dela beti. Gehiago oraindik, laneko munduan euskararen erabilpenari leku egiten ez bazaio, J. Fishman Soziolinguista famatuak esan berria duen bezala, zertarako balioko du Irakas-kuntza euskaraz egiteak?*

*Eskolan erabilitako hizkuntzak laneko munduan jarraipenik ez badu, eskolako hizkuntza bera eliminatzea ekarri bait dezake.*

Laneko munduan euskarari sarbidea egitea, beraz, ezinbesteko apustua gertatzen da euskararentzat. Alor horretatik kanpo gelditzen den neurrian bizitza sozialeko alor nagusienetako batetik kanpo gelditzea bait litzateke eta bide batez normalizazio orokorre-rako bideak hertsirik gelditzea.



## 5. EL EUSKARA EN LA ENSEÑANZA

*Hemos analizado dos formas de enseñanza: una, la que los niños reciben en sus centros, y otra, la que los jóvenes y adultos reciben en los euskaltegis y academias.*

*Al analizar la primera de ellas hemos podido observar que el camino que llevan hoy los centros escolares de Donostia no es el adecuado, si de veras se quiere que, como ordena la ley, al final de la E.G.B. todos los estudiantes posean*

*un conocimiento básico de las dos lenguas oficiales: el castellano y el euskara. Por un lado, el 4% de los estudiantes, que son 1.575, no reciben ninguna clase de enseñanza en euskara; no se les advierte siquiera del hecho de que existe la lengua vasca o euskara; símbolo claro de la falta de información elemental en el País Vasco.*

*Pues aunque esto va contra la ley, las cosas son y siguen así.*

*Por otro lado: a la mayoría de los estudiantes (60%) se les da euskara como asignatura. que es*



## 5. EUSKARA IRAKASKUNTZAN

*Bi motatako irakaskuntza aztertu dugu: bata haurrek eta gaztetxoek ikastetxetan jasotzen dutena eta bestea gazte eta helduek euskaltegi eta akademietan jasotzen dutena.*

*Lehenbiziko irakaskuntza motari dagokionez azterketa egiterakoan garbi azaldu zaigu Donostiako Ikastetxeak gaur egun daramaten bidea ez dela egokia, legeak agintzen duen bezala O.H.O.ren amaieran ikasle guztiak bi hizkuntza ofizialen oinarritzko ezagupen bat izatea nahi bada.*

*Alde batetik (%4) 1.575 ikasle ez dute euskararen inolako irakaskuntzarik jasotzen. Euskara ba danik ere ez zaie adierazten ikastetxean. Egoera hau legez kontrakoa izan arren bere hortan jarraitzen du. Bestalde, ikasle goaren gehiengoari (%60) euskara asignatura bezala ematen zaiolarik. Bide horretatik, beraz, ezingo dira ikasleak inolaz ere euskaldundu, eta bistan denez, gaur egungo bideari jarraituz, irakaskuntzak lehenaz gainera erdara potentziazten eta pribilejiatzen jarraitzen du.*

*B eta D ereduetan ikasten dutenak %30 inguruan dabilta; ez dira beraz 1/3era iristen.*

*Esan beharra dago baita ere haurrak euskalduntzen hasteko biderik egokiena den Haurtzaindegietaz ez dela Donostiako hiria behar hainbat baliatzen. Alde batetik, haurtzaindegia gutxi dagoelako, eta, bestetik, haur-*

*tzaindegietan euskarari ematen zaion sarbidea ez delako egokia, erdiak baino zerbait gehixeago besterik ez bait dira ikastetxean euskara erabiltzen duten haurtzaindegiak.*

*Halere, esan behar da, Ikastolaz kanpo, haurtzaindegiak direla euskara gehien erabiltzen duten ikastetxeak. Bide hori egokia dela eta areagotu eta bultzatu egin beharko litzatekeela, begi bistakoa da. Egokia izateaz gainera, bide hori bait da euskara ikasteko biderik efikazena eta merkeena. Izan ere, lehen urtetan euskara ikasten dutenekin ez dago gero irakasten ibili beharrik. Haurtzaindegietan gastatzen den dirua hizkuntza aldetik inbertsio guztiz errentagarria bait da.*

*Helduen euskalduntze-alfabetatzeari dagokionez ere pare bat puntu azpimarratu beharrekoak dira. Ikasten dabilen kopuruari buruz, alde batetik, eta ikasle go horren garrantziari buruz, bestetik.*

*Jakina da 1985-86 ikasturtean euskara ikasten zebilen heldu eta gazteen kopurua 6.000 pertsonetara hurbiltzen zela, eta guztira 1.300.000 orduko ikasketak burutu zituztela. Datu hauek zerbait eta zerbait baino gehiago ere egiten dela adierazten dute. Halere Donostian dagoen ikasle go potentziala kontutan hartzen badugu garbi ageri da gaur egun ikasten dabiltzanak ikasle go horren %10 besterik ez dutela suposatzen. Proporzio benetan eskasa Donostiako erdaldunak euskalduntzeko bidean jartzeta nahi bada behintzat. Hori lortzekotan asko gehiagotu beharko*

*como dar nada, como dar chino o francés, y por este camino no se euskalduntizará a nadie; y así, lo que hace la enseñanza, tal como está estructurada actualmente en Donostia es reforzar el castellano que ya desde antes está impregnando la vida y la cultura del niño vasco.*

*Los niños que acceden a los modelos B y D son alrededor del 30 %; no llegan, por tanto a 1/3 del alumnado.*

*Hay que decir también, que la fase más adecuada para enseñar la lengua, cualquier*

*lengua, la de las guarderías infantiles, no está siendo aprovechada en beneficio del niño y del euskara. Por una parte, hay pocas guarderías; por otra, porque la parte que se da al euskara en ellas no es la adecuada: no pasa de algo más de la mitad de guarderías existentes las que utilizan el euskara.*

*Ya pesar de esto hay que añadir que son estas guarderías las que, dejando a un lado las Ikastolas, los centros que más euskara utilizan.*

*Las guarderías son, por mucho, lo más eficaz en materia de enseñanza lingüística:*

*1) Es la más favorable para despertar la capacidad lingüística del niño.*

*2) Es la edad en la que el niño es capaz de aprender más fácilmente.*

*3) El camino más eficaz y el más barato para la Administración, puesto que lo que se aprende de niño no necesita proceso de aprendizaje posterior, naturalmente, y la inserción cultural al Bilingüismo es más completa.*

*En cuanto a la alfabetización de adultos hay que subrayar dos cosas: 1) el número de alumnos,*

*y 2) la importancia de este alumnado.*

*1) En el curso 1985-86 ascendió a 6.000 el número de jóvenes y adultos que atendieron a cursos, que, en total, impartieron 1.300.000 horas de clase. Esto dice mucho del esfuerzo que se ha hecho. Sin embargo, tomando en cuenta el alumnado potencial de Donostia/San Sebastián, está claro que sólo está atendido el 10 % del mismo, que es escaso si lo ponemos a la luz de nuestras necesidades.*

*2) Por otra parte hay que subrayar la impor-*





litzateke euskara ikasten dabiltzan gazteen eta helduen kopurua.

*Bestalde, azpimarratu beharra dago pertsona helduek euskara ikasteak duen garrantzia. Izan ere helduek eragin berezia izan dezakete, batez ere beraien seme-alabak euskalduntzerakoan, eta faktore biderkatzaile bezala joka dezakete ez bakarrik familia bidez egin ahal izango duten hizkuntz transmisioan, baizik eta bizitza sozialean haurtxoek eta gazteek beharrezko dituzten elkarrizketagile funtzioa betetzeko.*

*Azkenik, azpimarratu behar da helduen euskalduntzea eta haurrei euskara irakastea ez direla bi eginkizun kontrajarriak bezala kontsideratu behar,*

sarritan horrela egin bada ere, *elkarren osagarri* diren eginkizunak bezala, baizik. Izan ere *hizkuntz komunitate* bateko belaunaldien artean jarraipen bat izatea *hizkuntz komunitate* baten tentzat hil ala biziko arazoa da eta etena edo hautsia dagoen belaunaldien arteko *hizkuntz* haria berriro lotzea nahi bada, ezinbestekoa da *hizkuntz* hariaren bi muturrak elkarrekin lotzea. Horregatik du horrenbeste garrantzi haurrak euskaraz eskolatzearekin batera gazteak eta helduak ere euskalduntzea bi lan horiek burutzen ez badira *hizkuntz* hariaren mutur bat bakararrekin gelditzeko arriskua bait dago.

*sino funciones complementarias. En una comunidad lingüística, la continuidad generacional en el uso de la lengua resulta cuestión de vida o muerte, y la ruptura de ese hilo conductor que ocurrió en su tiempo exige ahora este esfuerzo común.*

*Por esto, limitar el esfuerzo a hacer que los hijos aprendan euskara es como quedarse con una sola punta de ese hilo conductor.*

*tancia que tiene la euskaldunización de los adultos en nuestra situación: es básico en la euskaldunización simultánea de sus hijos, y factor de reconducción para el papel que jugaba en nuestro país la transmisión familiar y al mismo tiempo de la función social de los interlocutores euskaldunes entre los miembros de toda la familia.*

*3) Finalmente, subrayar que la euskaldunización de los adultos y la educación euskaldun de los niños no hay que considerarlas opuestas,*

### 3. HIRUGARREN ATALA EUSKARAREKIKO ERITZI, JARRERA ETA BALORAPENAK. 1985

*Donostiako 1.200 herritarren artean egindako elkarrizketa pertsonalen ondorioz jaso ahal izan diren eritzi eta jarretaitik zabalduenak labur bilduz honako hauek izango lirateke.*

#### 1. EUSKARAREN EZAGUPENARI BURUZ

*– Donostiar guztien erdiak baino gehiagok euskara Euskal Herrian bizi diren guztiek jakin beharko luketela*

*erantzun dute. Hirutik batek, ordea, hautagai izan beharko lukeela uste du.*

*Nolanahi ere euskaldunak euskara esijitzearen aldeko jarrera azaltzen duten bitartean erdaldunak ez dute inposiziorik onartzen eta hautagai izatea nahiago dute.*

*– Administraritza Publikoan, Komunikabide Sozialetan eta Gizarteko Zerbitzuetan ia guztiek euskarari sar-*



*bidea ematea onartzen dute eta neurririk egokienak euskara ikasteko erraztasunak ematea aipatzen dute. Euskaldunek, enplegatu guztiei esijitzea aipatzen duten bitartean, erdaldunek, euskarari berdintasunezko tratamendua ematea onartzen dute.*

*Garbi dago, beraz: euskaldunak esijentziaren alde edo neurri zehatzagoen alde agertzen direla, erdaldunak pertsona bakoitzaren hautagai bezala uztearen alde agertzen diren bitartean.*

*– Euskararen ezagupena hobea goetzeko interesari dagokionez esan behar da, euskaldunen artean jatorrizko hizkuntzarekiko estimazio teorikoa altua bada ere, estimazio erreala, praxian agertzen dena, ez dela oso altua.*

*Erdaldunei dagokionez euskararen aldeko interesa oso altua bada ere, inposatu gabe izatearen baldintza aipatzen dute. Euskara ongi ikasteko interesa dutenak bostetik batean gelditzen diren bitartean, gutxiagorekin (zerbait ikasi, ulertzeko hainbat e.a.) konformatzen dira gehienak.*

*Euskara ikasten ibili den edo orain dabilen jendea hirutik batera iristen bada ere, ba da berriro beste saio berri bat egiteko prest dagoenik ere, ia erdiak. Beste erdiak ez daude horretarako prest.*

*Azken talde honek euskara ikastea heurentzako baino gehiago heuren seme-alabentzako gauza bat bezala ikusten du:*

### 3. OPINIONES, ACTITUDES Y VALORACIONES ACERCA DEL EUSKARA. 1985

*Después de 1.200 entrevistas personales realizadas en Donostia/San Sebastián, he aquí*

## 2. EUSKARAREN TRANSMISIOARI BURUZ

*– Donostian bizi den jendearen artean bostetik batek ditu bi gurasoak euskaldunak; hirutik bik, bi gurasoak erdaldunak dituen bitartean; gelditzen den multzoak bi gurasoetako bat euskalduna du. Dena den, garbi agertzen dena zera da: bi gurasoetatik batek bakarrik euskara dakien familietan, erdara nagusitzen dela; batez ere erdalduna ama denean.*

*– Familietan euskararekiko gehien goak ezagutu duen giroa indiferentziarena izan bada ere, euskaldunen artean aldeko edo oso aldeko giroa izan dute. Familian ezagutu duten giroarekin adostasuna agertzen dute nola euskaldunek hala erdaldunek.*


*– Seme-alabek Irakaskuntzan jasotzen duten hizkuntz erduei buruz, seme-alaba guztiak harturik hirutik bik A ereduan ikasten du, eta ez dira lautik batera iristen B eta D erduetan dabilzanak.*

*Esan beharrik ez dago bide hori jarraituz nekez euskaratu ahal izango direla Donostiako haurrak.*

*algunas de las actitudes y opiniones más generales que hemos podido recoger.*

### 1. ACERCA DEL CONOCIMIENTO DEL EUSKARA

*Más de la mitad de los donostiarras ha contestado que todos los habitantes de Euskal Herria deberían saber euskara. Sin embargo, uno de cada tres ha opinado que debería ser optativo.*



*En la Administración Pública, en las Comunicaciones Sociales y los Servicios Sociales, casi todos aceptan la introducción del euskara, y hablan de dar facilidades para aprenderlo.*

*Mientras los euskaldunes opinan que debe exigirse a todos los empleados, los que no lo son creen que hay que dar al euskara un tratamiento similar al castellano.*

## 2. USO DEL EUSKARA


**Preguntas a los no euskaldunes**

*¿Cuánto euskara escucha en su derredor?*

*Muy poco:*

*En familia, entre amigos, en el trabajo, en los juegos, en los servicios sociales.*

*Los castellanoparlantes viven un mundo completamente castellano.*



En Donostia:

*Oyen muy poco euskara, sobre todo porque los que saben no lo hablan.*

La mayoría:

*Perciben al euskaldun hablando en su lengua delante de ellos, sin que les moleste («Tienen todo el derecho, y tenemos que respetarlos», «Pueden hablar en euskara cuando lo necesiten, sin molestarnos por ello»).*

Algunos:

*Aunque los respetan se siente incómodos.*

Pequeña minoría:

*Consideran una falta de educación, porque todos saben castellano.*

De hecho:

*En la práctica, la presencia de uno que no sea euskaldun es suficiente para pasar al castellano.*

### 3. EUSKARAREN ERABILPENARI BURUZ

Atal honetan euskaldunei eta erdaldunei zuzenduriko galderak ezberdinak zirela esan beharrik ez dago:

#### EUSKALDUNEI DAGOKIONEZ

##### Hitzegiteko erabilpena

– *Bostetik hiru dira beste euskaldunekin beti edo gehienetan euskaraz mintzaten direla diotenak. Besteak erdara gehiago edo euskararik ia ezer ez dute erabiltzen.*

– *Norekin hitzegiterakoan erabiltzen duten gehien, famili bizitzan eta etxeko guztien artean erabiltzen dutela erantzun dute.*

– *Zertaz hitzegiteko erabiltzen duten galderari, gai guztietaz hitzegiteko erabiltzen dutela erdiek esan dute, eta ondoren gai arruntetaz hitzegiteko erabiltzen dutela.*

– *Non erabiltzen duten galderari, leku guztietan eta lagunartean erabil-*

*tzen dutenak berdintsu agertzen dira.*

– *Noiz erabiltzen duten galderari euskaraz, denak edo gehienak dakitenean erabiltzeko joera agertzen da. Hirutik batek baino gutxiagok gutxienean edo bakar batzuk dakitenean ere erabiltzen dute.*

– *Orohar euskararen erabilpena murriztua dela ezin uka.*

##### Irakurtzeko erabilpena

– *Euskaraz oso gutxitan edo noiz behinka irakurtzen dute gehienek. Gero inoiz irakurtzen ez dutenak datoz. Hamarretik bat besterik ez da normalki euskaraz irakurtzen duena. Erdararekin ez da horrelakorik gertatzen gehienek normalki irakurtzen bait dute.*

*Ondorio bezala garbi agertzen da erdaraz irakurtzeko joera euskaraz irakurtzekoa baino handiagoa dela.*

*Euskaraz irakurtzeko aurkitzen dituzten oztoporik ohizkoenak, ohiturarik eza, hizkuntzaren zailtasuna e.a. izaten dira.*



– *Bi hizkuntzetan idatzitako idaztiren bat eskuetara iristen zaienean, gehienek erdaraz idatzitakoa irakurtzen dute lehenik, gutxienak hasten dira euskaraz idatzitakotik.*

### **Idazteko erabilpena**

– *Gehienak oso gutxitan edo inoiz ere ez dute euskaraz idazten. Noiz-behinka edo normalki idazten dutenak lautik batera besterik ez dira iristen. Erdaraz, ordea, gehienek normalki idazten dute idazten dutena asko ez bada ere.*

– *Euskaraz idazten dutena gehienak eskutitzak, oharrak edo apunteak izan ohi dira, batez ere famili barnean. Hortik kanpo oso gutxi erabiltzen da.*

*Guzti honek garbi azaltzen du euskara hitzegiteko bakarrik balio duen hizkuntza bezala kontsideratua dagoela euskaldunen gehiengoaren aldetik. Izan ere, gehiengoa euskaraz eskolatua izan ez denez gero, irakurtzeko eta idazteko orduan erdarara jotzen du. Esan beharrik ez dago hau dela, besteak beste, euskarak bere normalizaziorako aurkitzen duen eragozpenik garbieretako.*



### **ERDALDUNEI DAGOKIONEZ**

– *Erdaldunek beraien inguruan zenbat euskara erabiltzen den galderari eman dioten erantzuna honako hau izan da: bai familian, lagunartean, lantegietan, jolastokietan eta gizarte zerbitzuetan erdara bakarrik edo gehienbat erabiltzen dela. Euskara oso gutxi entzuten dela, alegia. Erdaldunak, beraz, erdaldun giro batean murgildurik bizi direla ikusten da.*

– *Erdaldunen eriziz gaur egun Donostian egiten den erabilpena eskasa da, bereziki euskara dakien jendeak gutxi erabiltzen duelako.*

– *Euskaldun batzu erdaldunen aurrean euskaraz hitzegiten hasten direnean erdaldun gehienek «eskubide osoa dutela eta errespetatu behar ditugula» erantzun dute, eta nahi dutenean erabil dezaketela. Beste batzuk eskubide hori errekonozitu arren inkomodo sentitzen direla diote. Azkenik ba da minoria bat ere euskaraz hitzegitea begirune edo edukazio falta bezala kontsideratzen duena, guztiek gaztelaniaz dakitenez gero.*

– *Azkenik esan behar da erizpide edo kriterio hauek ez dutela praxian indar handirik izaten, euskaldun talde batetan erdaldun bakar baten presentzia nahiko izaten delako erdaraz hitzegiten hasteko, eta gutxi direlako euskaraz jarraitzeko eskatzen duten erdaldunak.*



*Hay pocos no euskaldunes que piden que continúen hablando en su lengua.*

### **3. CON RELACION AL BILINGÜISMO**

*La mayoría de la población considera necesario o conveniente, que el desequilibrio lingüístico actual dé paso a una normalización de la lengua vasca.*

*El camino más adecuado, la enseñanza escolar.*

*Dos de cinco opinan que las dos lenguas sean utilizadas al mismo nivel (al menos con el modelo B).*

*Uno de cinco opina que se dé el euskara como asignatura (modelo A).*



#### 4. BILINGUISMO EDO ELEBITASUN ERLAZIOEI BURUZ

– Euskara gaur egun dagoen egoera diglosiko eta desorekatutik irtetzea behar beharrezkotzat edo gutxienez egokitzat jotzen du Donostiako jendetzaren gehiengoak.

Irakaskuntzan ikusten du gehiengoak desoreka horretatik irtetzeko biderik egokiena.

Bostetik bik, euskara eta erdara maila berdinean erabiliak izatea nahi du (gutxienez B erdua) eta bostetik batek asignatura bezala (A erdua) irakastea nahikotzat jotzen du. Ba dira euskara ikastea hautagai izatea nahiko luketenak ere.

Euskaldunen eta erdaldunen artean ba da ezberdintasunik.

Euskaldunen erdiek baino gehiagok dena euskaraz ikastea nahiko luketen bitartean, erdaldunen artean hamarretetik batek ere ez du horrelakorik nahi. Euskara irakaskuntzaren maila guztietan sartzeari nahiko lukete.

Era berean Administrazio Publikoan, Komunikabide Sozialetan, Gizarte Zerbitzuetan eta Industri Lan-tegietan euskarari sarbidea eman beharko litzaiokeela guztiek onartzen dute.

Euskara sartzeko biderik egokiena zein den adierazterakoan eritzi ezberdinak azaltzen dira.

Euskaldunentzat enplegatu guztiek euskara jakin beharko lukete, gutxienez herritarrekin harremanak dituztenek.

Erdaldunak esijitu baino gehiago aukerak eskeintzearen aldekoak dira, inposatu gabe eta behar diren epeak eskeiniz, euskaraz ez dakitenak arrazoizko epe batzutan eta poliki poliki ikasten joan daitezten.



#### Hay diferencias entre euskaldunes y los que no lo son


Euskaldunes: más de la mitad opina que todo se aprenda en euskara.

No euskaldunes: que el euskara entre a todos los niveles: Administración Pública, Comunicación Social, Servicios Sociales, Empresas Industriales.

#### Camino

Euskaldunes: que todos los empleados conozcan euskara, al menos los que tienen que ver con el público.

No euskaldunes: más que exigir, ofrecer opciones, sin imponer, poner plazos razonables...



– *Euskararen errekupeazioa, beharrezkotzat edo/eta egokitzaiz jotzen dute. Euskaldunak beharrezkotzat gehienbat, eta erdaldunak egokitzaiz gehiago.*

– *Eusko Jaurlaritzak hartu dituen neurritaz informazio gutxi du jendeak. Enteratu direnen artean neurri horiek eskasak edo oso eskasak direla diotenak egokiak eta nahiko direla diotenak baino ugariagoak dira. Gehiegizkoak direla ere erdaldun batzuk erantzuten dute.*

– *Zein neurri hartu beharko liritekeen Agintarien aldetik euskara berreskuratzeko, galderari, euskaldunen aldetik Plangintza orokor baten beharra*

azpimarratu dute, bai Euskal Herri mailan bai udal mailan. Herritarrei dagokionez, berriz, euskara dakitenek erabil dezatela eta ez dakitenek eperik laburrenean ikas dezatela, aipatzen dute.

– *Euskara jakiteak euskaldunei poza sentiarazten die. Horretan ez dago zalantzarik.*


*Erdaldunei, berriz, euskara ez jakiteak ez die beren bizitzan eragozpen handirik sentiarazi. Izan ere euskararik ez jakin arren euskaldunen aldetik onartuak sentitu dira. Euskara ez jakitearen hutsunea ezertan nabari denik ez dirudi gehiengoarentzat, minoria batek aipatzen du batez ere lagunarteko, ha-*


## 5. EUSKARAREN IRUDI ETA BALORAPENARI BURUZ

– *Euskal Herrian bizi garela kontutan izanik hizkuntza sail baten artean zein hizkuntzari ematen dioten garrantzirik handiena galdetutakoan:*

*Euskaldunak aho batez euskarari ematen diote lehentasuna. Erdaldunen artean, berriz, erdiek baino zertxobait gehiagok gaztelaniari ematen diote lehentasuna eta erdiek baino zerbait gutxiagok euskarari.*

– *Euskararen etorkizunaz gehiengoaren ustea Euskara Euskal Herri osora zabaltzekoa da. Beren nahia ere horixe litzatekeela proportzio handiagoan adierazten dute, batez ere euskaldunen artean, baina baita erdaldunen artean ere.*





20  
rreman pertsonaletan eta kultur alo-  
rrean sentitu dutela hutsune hori.

*Euskararen errekupeazioa ziurta-  
tzeko euskara ongi ikasteko eta besteei  
laguntzeko prest daudela agertzen da.*

*Azken ohar bezala gogorazi beharra  
dago hemen jaso ditugun erantzunen  
laburpenak gehiengoaren erantzunak  
direla baina esan dugu, baita ere, ba  
direla hemen agertzen diren erantzunen  
kontrakoak edo aurkakoak ere.*

*Halere esan behar da euskararen  
aurka agertzen dena minoria txiki  
bat baldin bada ere, atal guztietan  
agertzen dela. Horiek dira euskara-  
rekiko interesik ez dutenak, ez beraien-  
tzako ez beraien seme-alabentzako,  
euskararen beharrik ikusten ez dutenak,  
gaztelaniarekin nahikoa dugula pentsa-  
tzen dutenak e.a.*

*Amaitzeko esan behar da, ordea,  
euskararekiko eritzi ezkorak dutenen  
minoría hau ez dela minoría txiki  
bat besterik. Gehiengoaren pentsakera  
bestelakoa dela.*

*Donostiako herritar gehienek eritziak  
eta jarrerak, ikusi ahal izan dugun  
bezala, euskararen aldekoak baldin  
badira, garbi dago herritarren jarrera  
baikorrek agintarien aldetik euskara  
indarberritzeko eta bere erabilpena  
normalizatzeko eragina eta ekintza  
programa zehatzak eskatzen dituela.*